

KZgunea Zerbitzuen Agiriak Aenor 93200 ziurtagiria jas du kalitatearekin duen konpromisoarengatik

Eusko Jaurlaritzaren proiektu bati horrelako ziurtagiria eman zaion lehen aldia da

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako eta Euskal Autonomia Erkidegoko 250 udalerrietan 275 zentro eragile dituen Interneten trebatzeko KZgunea euskal sarea ziurtatu du AENORek UNE 93200 arauan, 'KZgunea Zerbitzuen Agiriari' dagokionez, kalitatearekin eta herritarrenganako gertutasunarekin duen konpromisoarengatik. Euskal Gobernuaren proiektu batek arau berri honetan lortu duen lehen ziurtagiria da.

Zerbitzuen Agiria dokumentu publikoa da, eta bertan, eskaintzen diren zerbitzuen gaineko eta onartzen diren konpromisoei buruzko informazioa ematen zaie herritarrei, betiere, kalitate-arauekin bat etorritik gauzatu ahal izateko.

Ildo horretatik, Aenor enpresak KZgunea sareari emandako Zerbitzuen Agiritako UNE 93200:2008 arauan oinarritutako ziurtagiriak Eusko Jaurlaritzak zentro hauetan guztietan kalitatezko zerbitzua eskaintzeko duen konpromiso publikoa bermatzen du, betiere, erabiltzaileen goi-mailako asebetetzea bilatuz. Gainera, ziurtagiriak, lortutako konpromisoen barne-kontrola ezartzean, hobekuntza garrantzitsuak eskaintzen ditu zerbitzuen kudeaketan. Eskaintza ziurtatzeak, gainera, erabiltzaileei konpromiso horien betetze- maila jakinaraztea ere esan nahi du, betiere, gardentasun horrek berekin dakarren eskakizunarekin.

Eskaintza hori ziurtatzeko, erabiltzaileen aurreikuspenei arreta berezia eskaini zaie, baita lortutako konpromisoen jarraipenari eta betetze-kontrolari ere. Horrela, alde guztien parte-hartzearekin, KZguneak eskainitako zerbitzua etengabe hobetuko da, eta hori herritarren mesedetan izango da.

KZgunea proiektua

KZgunea telezentroen sare publikoa funtsezko elementua da Euskadin Informazioaren Gizartearen aurrerapenerako.

Erakunde mailako proiektuak hiru erronka gainditu ditu dagoeneko:

- 15 urte baino gehiagoko Euskadiko biztanleen guztizkoaren %15 baino gehiago erregistratutako erabiltzaile gisa sartzea.
- Interneten nabigatzeko trebatzea herritarren segmentu horretako %6 baino gehiago.
- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri guztietan egotea.

Telezentroek Euskadiko herritarren ia erdia ohikotasunez internauta gisa agertzea eragin dute.

Trebakuntzako eta Interneteko sarbide publikoko, lagundutako, doako eta unibertsaleko KZgunea sareak, herritarren arraila digitalaren aurka borroka egiten jarraitzeaz gain, etorkizunera begiratzen du, Administrazio elektronikoa bultzada emateko plataforma gisa eratzeko asmoz.

KZgunea Interneteko guneen sareak helburuak betetzen darrai:

- 300.000 erabiltzaile izena emanda
- 115.000 hiritar oinarriko Interneten prestatuak
- 40.000 pertsona Internet aurreratuan eta mintegi berezietan prestatuak
- 26.000 hiritarrek IT Txartela lortu dute (IKT-en erabileraren egiaztagiria)
- 7.000 profesional sektoreko ikastaroak eginik (KZ Prestakuntza Mikroenpresak)